

E Elkarrizketa**SABINO ORMAZABAL** »18/98 auziko auzipetua

Politika » la hamarkada iraun duen Joxemi Zumalabe Fundazioaren auzian auzipetua izandako bederatzi kide absolbituak izan ziren hilabete hasieran.

MAITANE ALDANONDO

18/98 sumarioa bi urte lehenago hasi bazen ere, Sabino Ormazabal (Antigua, 1953) eta Joxemi Zumalabe Fundazioako kideak kartzelara eman zituen auzia bi urte beranduagoa da. Elkarrizketaren aurretik ohartarazi egin du kazetaritza ogibide duen Ormazabalek hobe moldatzen dela idatziz hizketan baino eta urtetan luzatu den prozesu honen zenbait gertakari buruz mintzatu zaio HITZARI

Bederatzi urteko prozesua izan da. Nolakoak izan dira urte hauek?

Hitz batean, amesgaiztoa izan da. Bi aldiz atxilotua izan naiz, zortzi hilabetez preso, epaitegira joan behar izan dut sinatzea, bi berme ordaindu ditut, ezin izan dut bederatzi urtetan Piriniotik gora joan... Kriminalizatuak izan gara, etiketa bat jarri digute, eta Fundazioako absolbitu bagaituzte ere ez da ezabatuko. Zenbait forotan denetarik deitu digute eta ez dugu behar bezala defendatzeko aukera izan. Ezin ahaztu dugu, noski, sumarioan egon den hainbatentzat 9 urte hauetakoz gain sufrimenduak luze jarraituko duela.

Zer egotzi zaizue Joxe Mari Zumalabe fundazioako kideoi?

Fundazioako kide guztiak, eta desobedientzia zibilararen piezan geunden bederatzi pertsonak —une batzuetan hamar izan gara— gizarte mugimenduetan desobedientzia zibilar buruzko eztabaida zabaldu dugulako epaituak izan gara. Fundazioari egindako salaketa ETArekin menpe edo bere aginduz egin genuela izan zen.

Zertan oinarritu dute salaketa? Herria Mugi! gizarte mugimenduei zuzenduriko jardunaldi publiko batzuk antolatu zituen Egia kultur etxean. Fundazioak lagundu egin zituen eta Udalaren diru laguntza jaso zuten. Bertan, hainbat txosten aurkeztu ziren lurralde antolakuntza, komunikazioa eta desobedientzia zibilar buruz. Salaketa hor aurkeztu zen *Piztu* ponentzia ETArekin zela eta Fundazioetik zabaldu genuela. Atxilotuak izan ginenaren ponentzia horren egilea zen Mikel Zuluaga ez zuten atxilotu; Zuluagak berak egilea zela adierazi zuen eta Audientziaren esku jarri zuen bere buruan dena argitzeko, baina alferrik. Su-etan garaia zen eta komunikabideetan, monografiko asko argitaratzen ziren desobe-



MAITANE ALDANONDO

«Fundazio batean egoteagatik ez duzu atxilotua izatea espero»

dientzia zibila aurrera egin eta gizartea aldatzeko modu bezala aurkeztuz. Testuinguru horretan ikusi behar dira jardunaldiak eta txostena.

Zergatik uste duzu atxilotu zintzuzteela?

Alde batetik, Fundazioaren inguruan urtetan mugimendu sozialaren aritutako beterano batzuk zeudela ohartu ziren. Ordura arte egurra emateko aukera izan ez zuten susto bat emateko aukera ikusi zuten. Bestetik, desobedientzia zibila ETArekin lotuta kriminalizatu, eta alternatiba bat geldiarazteko. ETArekin lotzean helburua desaktibatzea zen, jendea ez gerturatzea, ez biltzea... hori nahi izan dute, nik oso argi ikusten dut. Aznarrek horrela bota zuen jardunaldi horien ondoren egindako mitin batean, «badakigu eztabaidatzen ari di-

Desobedientzia zibilararen aldeko alternatiba desaktibatu nahi izan zuten eta lortu dute

Euskal Herria aldatzeko ideia eta bideak asmatu behar ditugu, ezin dira betikoak erabili

rela kale borrokari eta borroka armatuari alternatiba bat, hori da desobedientzia zibila eta badakigu nortzuk egiten ari diren».

Nola jaso zenuen inputatua izatearen berri?

Espetxean jakin nuen auzipetuak izango ginela. Dena oso azkar joan zen. Atxilotu, espetxean sartu eta salaketak ez hanka ez bururik ez zuela ikusi nuen. Tontontonto aurrera joan zen eta nik oso gaizki hartu nuen, inork ez genuelako espero, ez baikenuen uste Fundazioaren lana kriminaliza zezaketetik. Lemoizen aurka, ekologia munduan, antimilitarismoa, manifa batean egon zarenean... aukera duzu atxilotua izateko, baina ez Fundazio batean egoteagatik. Nire momentu txarrenak kartzelara joan nintzenean izan ziren. Besteak beste, egunkari bat eta irrati bat itxi zintzuzteela ikusita —gerora *Egunkaria* itxi zuten— planifikatuta zegoen zerbait zela ikusten duzu. Nire aurkako edo Fundazioaren aurkakoa soilik ez zela, jende mordo bati eragiten ari zaiola baizik. Buelta eman nion eta bigarren atxilotetan nire burua prestatu- xago zegoen

Lasaitua izan duzu absolbitua izan ondoren?

Gau horretan abokatuak etxera

deitu zidan atxilotetak egiten ari zirela esanez. Fiskalak absoluzioa eskatu zuenez, guregana etorriko zirenik ez zuela uste esan zidan baina nik plantxa hartu eta arropa prestatu nuen, badaezpada. Baina ez ziren etorri. Ez digute zorientzeko aukera eman, zortzi pertsona modu krulean atxilotuak izan zirelako. Adineko jendea da, gaixo daudenak, bat gorra da, ebakuntzak egin dizkiete... krudela da ihes egiteko asmorik ez zutela frogatu batitute astero sinatzeraz joanez. Ez dizute poz osoa sentitzen uzten hauekin eta espetxean gelditzen direnekin gogoratzen zarela. Gure piezan Karlos Trenor abokatuak kartzelan jarraitzen du beste auzi batean dagoelako; gazigazoa da.

Fundazioako kideak absolbituta fundazioaren lana susmotik kanpogelditzen al da?

Teorian absolbituak izan gara, errugabeak gara. Baina nahiz eta Fundazioa eta gu libre gelditu, nahi zutena lortu dute: proiektua kaltetzea. Fundazioa proiektu berezia zen aurrera begirakoa, jendea elkartzeko, ideiak eman eta zabaltzeko, eztabaidak, elkarlana eta ezagutzabultzatzeko... eta hori dena kalteturik gelditu da. Beldurra sortu eta kutsatu egin dute. Bederatzi urte hauetan indar gehienak gure burua defendatzen eta

sumarioari modu egokian nola erantzun asmatzen joan dira. Dena den, jendea hemen gaude eta burua eta gure nahiak aurrera doaz eta ez bada Fundazioaren birtatez beste modu batean izango da. Mundu bidegabe hau aldatu behar dela eta Euskal Herria ere mila modutan alda daitekeela ikusten dugu. Asmatu egin behar da ideia eta bidea. Ezin dena da betiko lelo eta bide berdinak erabili, hots, modu berdinak; bide berri bat asmatu behar da. Fundazioan egon garen jendea horretan aurkituko gaituzte.

Abokatuak atxilotetak egiten ari zirela esatean, plantxa hartu eta arropa prestatu nuen

Epaia izan dena izatea espero zen nuen?

Bada, ez dakit zer esan. Beti fiskalaren eta tribunalararen artean ezberdintasunak egon dira. Lehen epaieketan zazpi urte eskatzen zituen fiskalak eta tribunakal bederatzi eta hamar eman. Bigarren atxilotetan, fuga arriskua zegoelako, fiskalak berriro kartzelaratzeari eskatu zuen eta tribunakal bermepean libre utzi gintuen. Oraingoan Fiskaltzak eskatu du libre utzea, eta tribunakal agian kontra egingo zuela uste genuen. Baina, oraingotan ados jarri dira.

Zer aldatu da?

Uste dut jende askok alarma gorriak piztu dituela eta gure alde egiten lagundu duela. Hemen ez ezik, Katalunian kanpaina handia egin du jende askok. Intsumiso munduak ikusi du desobedientzia zibila ezin dela kriminalizatu; eta intsumisoei, antimilitaristek eta espektro politiko guztiko jendeak, PP-koek izan ezik, gure alde sinatu du. Amnesty International ere gainean zegoen, beraz, giroa bazeon baina, agian, uste genuena baino hobe irten da. Hasieran fiskalak bost pertsonarentzat bakarrik eskatzen zuten absoluzioa eta, azkenean, Fundazioa izan da. Alde horretatik kontent, ez genuen espero gertatu dena.

18/98 auziak iraun duen artean mobilizazio asko izan dira. Zure ustez jarraituko al dute?

Mobilizazioa zentzu zabalean ulertzen badugu, bai. Sumario gehiago datoz, oro har, 500 bat pertsona egongo gara halako auzietan, eta aurrera begira ez dirudi gauzak lasaituko direnik edo beste bide bat hartuko dutenik. Mobilizatu egin behar da bide on bat aukeratzuz, perspektiba galduta gabe, ezin da bakoitza bere aldetik joan eta gauzak testuinguru osoan ulertu behar dira. Bide egoki bat asmatu behar dugu. Gauzak ez dira zerutik erortzen eta jendeak aktibo egon behar du, mobilizatzeko aukerak eta arrazoiak badaude.